

Ikasketen homologazioaren labirintoa



SHEIDA BESOZZI
IKERTZAILEA

Ikasketak homologatuta izatea *sine qua non* baldintza da, ez zizuten esan?". Aishak ez zekien homologazioa edo, hala badagokio, Pakistanen egindako ikasketen baliokidetasuna lortzea hain zaila izango zenik, 2012an Euskadira iritsi zenean. Hona iristean enplegu duin bat lortzeko edo ikasketekin jarraitzeko oztupoak aurkitu dituzten emakume-migratzaile guztiak pertsonifikatzen ditu Aishak. Aishari eta beste hainbati esan ez ziotena da ikasketak homologatzeko prozesua urteetan luza daitekeela, izapidea hasten denetik.

Ikasketen homologazioa, prozesu luzea izateaz gain, ez dago denen eskura. Izapidearen gastu ekonomikoa eta horrek dakarren prozedura, bai hasteko garaian, bai bitartean, iritsezinak izan daitezke askorentzat. Izapide hori Hegoalde globaletik datozen migratzaileei eta, bereziki, emakumei kalte egiten dieten gailuetako bat baino ez da. Horien gainean daude, hein handi batean, adineko eta mendeko pertsonen zaintzak EAEn. Bidez Bide elkartean arreta berezia eskaintzen diete lan egiten duten etxeetan 24 orduz bizi diren emakume langileei. 2009an sortu zen elkartea, eta, hein handi batean, Euskadin bizi diren emakume migratuek osatzen dute. Bidez

Bidek lan handia egiten du laguntza behar duten pertsonen aholkularitza emanaz beren ikasketak eta prestakuntzak homologatzeko eta baliozkotzeko erronkan. Esparru hori jorratzen duen elkarte bakarra da erkidegoan, eta duela gutxi ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko Parekatu aholkularitza programa patentatu du, EAEn bizi diren emakume migratuei zuzendua.

Estatu espainiarrean eta, ondorioz, baita Euskadin ere, ikasketak homologatzeko oztupoa arazo handia da migratzaileen komunitatearentzako, eta gutxi hitz egiten da horretaz. Carmen A. Cares Mardonesek eta Cecilia Themme Afanek Emakunderen 2020ko laguntza ekonomikoarekin argitaratu berri duten txostenean ohartarazi bezala, emakume migratuen ehuneko handi bat, bereziki Hego eta Erdialdeko Amerikatik etorritakoak, birkualifikatuta dauden lanpostuak betetzen ari dira. Egituraren konplexua ikusaraztea eta egoera horretan dauden emakume atzeritarrei bidea erraztea dira Bidez Bideren helburuetako batzuk. Elkartearen lanari esker, emakume askok beren ikasketak aitortzeko prozeduratan murgiltzeko laguntza jaso eta beren bizi-baldintzak hobetzen ari dira. ●

Telefonoz



UXUE APAOLAZA

Dena telefonoz hasten da, eta telefonoz amaitzen; onenean. Zure lehen deia ondoan, erizainak deituko dizula esango dizute. Tira, zuk medikuarekin hitzordua hartzeko deitu duzu, baina ea. Azkarregi da haserretzeko, eta gaixorik zaude (edo dago, adibidez, zure haurtxoa). Erizainak esango dizu koronabirus-proba, parasetamol, ez atera etxetik. Eta medikua? *Ezateraetxetik* erremedioak ez du errezeta beharrik, beraz, zuk edo haurraren arnasestuak medikurik ere ez. Bestela, auskultatu, plakak, han eta hemen ukitu, estutu... lehengo medikuen erritualei nolabaiteko konfiantza bazenien, nork daki zergatik, bada, *colaboraciónpublicoprivada*. Zuri, espazio zabal eta aireztatuetan bizi direnengana

irits daitekeen kate bat has dezakezun kutsatze-bektore horri, medikuak bihar deituko omen dizu: baina berriro erizainak egiten du (beste koronabirus-proba bat, ez azkena). Eta, aizue, egia da, sukarrak kiskaltzen egon zaren guztietan, bizirik atera zara.

Baina zure auskalo zenbatgarren deian erizainari edo idazkariei oihuka amaituko duzu, ostu egin dizutelako lehen arreta, muturren aurrean, egun argiz. Eta horrek hil egiten du. Lineaz bestaldean, mutu entzungo dizu langile susmagarriak etxean eusteko telefono-agentzia bateko telefonista bihurtu duten langileak. Horretarako dago, zure haserrea hortxe, behe-behean, langiletik langilera deskarga dezazun. Telefonoz. ●